

# Nafarkaria

• ostirala • 2001eko martxoaren 16a

Egunkaria

Gehigarri honetan



**Larraintzar** • Arraizko Christian haurraren aldeko herri kirol festa egingen dute bihar

**Tomas Muez eta Angel Lukin** • «Zein eragin sortzen duten jakin artean, antenak ahalik eta urrunen nahi ditugu»

• MIKEL SAIZ



## Liburuen bide laburra

San Frantziskotik San Frantziskora joanen dira Nafarroako Liburutegi Nagusiko liburuak. Berrogeita hamar bat metroko bide laburra egingen dute egungo eraikinetik eskolen eraikineraino. Liburutegiaren egungo eraikina banku baten egoitza izan zen, eta hotel batena geroago. 1971. urtetik liburutegi bezala erabili dute, eta, hogeita hamar urteren bueltan, Nafarroako liburutegi handiena ttiki gelditu zaie. Liburuentzako kokaleku berria aukeratu eta ideia lehiaketa abiatu dute, baina lanak noiz hasiko diren jakiteko goizegi da oraindik.



• MIKEL SAIZ

## Larraintzar ●

## Kirol festa Christianenen alde

Bihar herri kiroletako festa eginen dute Larraintzarko frontoian Arraizko umearen alde

**Garun malformazio bat dela eta, tratamendu berezia egiten ari dira Christianekin EEBBetako Philadelphia hirian. Gasto guztiei aurre egiteko antolatu duten kanpainaren barnean kokatu dute biharko festa; aizkolariak, arpanlariak eta sokatiralariak izanen dira bertan, besteak beste.**



Marisol Melero, bere seme Christianekin jolasean. Haurrak tratamendu berezia behar du aitzina egiteko. ● MIKEL SAIZ

ORAIN DELA LAU URTE JAI Ozen Christian, garuneko lesioa handia zuela. Urtebete eta erdi kontsultaz kontsultatzer egin jakin gabe eman ondoren, argi bat piztu zitzaion Esandia-Melero familiari, telebistan euren bezalako kasu bat ikustean. Haiekin harremanetan jarri eta Philadelphia egiten duten tratamendu baten berri jaso zuten. Tratamenduarekin, umea ezin da inoiz erabat sendatu, baina bai aurrerapen handiak lortu, eta estimulu batzuei erantzun: aginduak ulertu, irudiak eta hitzak bereizi eta abar.

Tunelaren bukaerako argia ikusita, ezintasun ekonomikoak dirua biltzeko kanpaina egitera bultzatu zuen familia orain dela bi urte. Azkenean Philadelphia joatea lortu zuten. Horretaz gain, jendearen laguntza ere behar zuten, eta boluntario anitzen laguntza dute egunero hainbat ari-

keta egiteko. Sei hilabetetik behin abiatzen dira Philadelphia azterketak egiteko, eta lan egiteko programa berri bat jasotzen dute. Marisol Melero umearen amak NAFARKARIARI azaldu dienez, «umeak orain irakurtzen du, lagunduz gero zutitzen da, eta matematikak ere erakusten ari gara; ez du hitzik egiten, baina dena ulertzen du. Hau guztia lehen pentsaezina zen». Melero ez dago batere pozik hemengo instituzioengandik izan duen laguntzarekin. Bere ustez, «gizarte hau ez dago prestatuta hau bezalako ume bati laguntzeko, ez dute informaziorik ematen, eta mediku gehienek sekulako astokeriak erraten dituzte, umea zentro berezi batean sartzeko eta zure bizitza egiteko eta horrelakoak».

Izan badira metodo horren kontra agertu direnak, erranez ume guztiekin ez duela funtzionatzen, hemen ere eskaintzen direla emaitzak dituztenak eta jarraipen gutxiago eskatzen dutenak. Hori ikusirik, Esandia-Melero familiak dio Glenn Doman metodoaren sortzaileak emaitzak bildu dituela eta kasuen %99tan aurrerapenak izan direla.

#### Arnasteko makina ordaintzeko

Orain sortu zaizkien gastuen artean, 400.000 pezeta


(16.000 libera) balio duen arnasketa lantzeko makina berezi bat dago, eta arazo bertsua duten familiak biltzen duen Alecon fundazioak kanpaina bat jarri du martxan. Horren barnean, Zurgai herri kirol taldeak, Ultzamaldeko gizarte zerbitzuak eta Ultzamalako Udalak biharko herri kiroletako festa antolatu dute. Larraintzarko frontoian, trontza, sokatira, aizkora eta modalitate gehiago ezagutzeko aukera izanen du jendeak lehendabizi, baita parte hartzeko aukera izan ere. Gero aizkora, zerra eta aitzur era-

kusketa izanen da, eta, bukatzeko, tronza desafioa, Mariñelarena, Goldarazena, Morrondo, Pikabea eta Kañamares anaien eskutik. Hori guztia 500 pezetaren truke. Horretaz gain, Nafarroako Kutxan kontu korrontea ireki dute, nahi duenak laguntza emateko: 2054 0264 30 001000028 4. Dena den, Marisol Melerok erran duenez, «zalantzaren bat duen edonork gure etxeko ataria irekita du nahi duenean etortzeko».

→ Txari Eleta

### bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Aretoko sabaitik zintzilik zegoen fokua pizteaz bat, areagotu ziren, nabarmen gainera, publikoaren oihu eta esku-zartak. Horrela, nekez entzun zitezkeen aurkezlearen hitzak, batik bat, bi lehiakideen izenak —Konsti eta Tzale— bozgorailuz esan zituenean: «Borrokaldia has dadila, behingoz».

Konstik, begiak zoli, bortizki jaurtiki zuen eskuineko ukabila bestearen matrailean bete-betean joz. Kolpea erabatekoa izan zen. Tzalek, orduan, ozta-ozta zutundurik, tamaina ertaineko su-itxalgailu bat deseskeki zuen zutabe batetik, eta, ahal zela, Konstirengana jo zuen kulunka. Lehenik, begietara zuzendu zuen muturra, eta gero, segurtasun-eraztuna askatu: zuri koloreko apar txorrotada bat irten zen tututik, presio eta prezisio handiz. Minaren minez eta garrasika belaunikatu zen Konsti, eta, burua makurtua izaki, maniobra erabat erraztu zion Tzaleari; zein-

nak behin eta behin —aurrena buruan, eta hurrena bizkarrean— ukaldi itzelak eman baitzizkion, Konsti hil zen arteraino, noski.

Antolatzaileek ertz batean paraturiko mahai batera joan zen jarraian, beretzat zen-eta zilarrezko erretilu batean zegoen saria, ikuskizun eder harengatik zegokion gararailen trofeoa; orrazi bat, alegia, marfilez bikain moldatutakoa.

Orrazia aldean zeraman zorro batean sartu zuen Tzalek, eta, keinu lizun eta erasokorrak eginez, aurre egin zion publikoari, adierazi nahian edo, oraindik ere nahi beste indar bazuela beste edonorekin borrokan segitzeko.

Berehala, biela bat eskuetan tinko hartuta, atera zen jendartetik Santxo Osoa izeneko gizatza kopetandi bat, oinak babesten zituen bota-azpiak kranpoiez hornituta zituena. Tzalerengana hurbildu zen kras-kras eginez, eta albo-alboan zuela, egundoko bielakada eman zion kopeta

erdian. Ziplor erori zen Tzale, eta, buruz gora zegoela, haren gainera egin zuen jauzi gizatza; horrela, kranpoien hogeita lau puntak bular eta saihsats aldean tinkatu zizkiolarik. Aizue, zerrikeria bat. Espero bezala, Tzale akiturik zegoen ordurako.

Orrazia hil berria zuenaren zorrotik atera eta, zuzenean, harro-harro eginda, jo zuen sari bila; hots, antolatzaileek lehenagoko mahaietan baina beste erretilu batean berrikitan paratua zuten Alacanteko turroi gogor eta gozo barra baten bila.

Pozez kabitu ezinik, orrazia zein turroia jendarteari erakutsiz, erretiratu zen, egundoko ulu eta txalo artean, alda-geletara.

Santxo Osoak —Konstiren eta Tzaleren antzera—, guztiz burusoila izateaz gain, ez zuen ez hortzik ez haginik ahoan.

## Publikoak ere ez zuen eskurik

# Baztan-Bidasoa ● Antzerkilarien gogoeta

Eskualdeko antzerki talde eta kultur eragileen gogoeta egingen da gaur  
Doneztebeko Juansenean

Garalur elkarteak antolaturik, Baztan-Bidasoako antzerkiaren inguruko gogoeta jardunaldia egingen dute gaur Doneztebeko Juansenean, 18:30ean.

Hiru bailaratako hainbat antzerki talde, antzerki enpresa, kultur eragile eta garapen agente elkartuko da gaur.



Baztan, Malerreka eta Bortzirietako antzerki mugimendua aztertuko dute gaur Donezteben. Irudian, Lesakako Mairu taldearen antzezlan bat. ● EGUNKARIA

**E**LKARTEA NAFARROAKO mendialdean kultur arloan egiten ari den azterketaren barruan antolatu da gaurko bilkura. Baztan-Bidasoa inguruan azken urteotan antzerkiari lotutako hainbat ekitaldi antolatu izan da, eta horien guztien berri bilzteza da asmoetako bat, baina haratago ere jo nahi dute sustatzaileek. Dauden hutsuneak atzeman eta elkarlanean zer egin daitekeen aztertu nahi dute.

Badira hainbat ekitaldi es-

kualdean urtero-urtero errepikatzen direnak. Beran, adibidez, helduentzako hainbat antzerki lantegi iraunkor daude, Bai eta Lamixine BAT antzerki taldeak, Barbotegiberri antzerki ekoizle eta banatzailea, Antzerkia eta Eskola egitasmoa hezkuntza arautuan lantzen dena, Mugaz Gain antzerki jaialdia... Beran bezala, bertze herrietan ere hasia da antzerki mugimendua. Baztanen, batik bat bertako dantzarien eskutik, hainbat

ikuskitun antolatu izan dira, Hamabi Ordu Eskuaraz ekimenaren bidez lehenik, eta horren harira geroago. Iruritan ere bada antzerki talde bat, eta bertze hainbertze Lesakan. Malerrekant taldea osatzeko lehen urratsak egin dituzte, eta Zugarramurdin Akelarrea prestatzen dute aspaldiko urteetan.

#### Hobetzeko premia

Egoeraren azterketa egiteko tenorean, zer hobetua badago-

ela nabarmendu dute antolatzailerik, batik bat baliabideei dagokienez —antzerki bakarria dago eskualde osoan, eta bi kultur dinamizatzaile baino ez—. Dagoen indarra ikusirik, koordinaturik eta elkarlanean gauza anitz egin daitezkeela uste dute, eta gaurko bileraren helburu nagusia hori izanen da: hain zuzen ere, aitzinera begira nola antolatu eta nola egin daitekeen lan aztertzea. Kontuan hartu behar da, oro har, gaur egun taldeek ez dutela elkar ezagutzen, eta ez dutela elkarren berri, eta hain eremu tiki horrek anitz zailtzen ditu gauzak. Bertzalde, aurten Europako Batasunak kultur arloko garapenerako diru laguntza bereziak emanen dituzenez, horietaz baliatuta zerbait egin daitekeen aztertuko dute.

Bilkurak, beraz, lau ardatz nagusi izanen ditu. Lehenik, bakoitzaren lanaren berri emanen da, eta epe laburrean talde bakoitzak dituen egitasmoak. Bigarrenik, gainerako taldeen eta horien egitasmoen berri edukitzea lortu nahi dute. Hirugarrenik, arazo eta behar nagusiak aztertuko dira, eta horiei nola aurre egin. Azken puntuan, elkarlanean zer egin daitekeen ikusiko da, batik bat prestakuntza arloan eta laguntza teknikoan.

→ Jon Abril

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

### Hainbat kontu Sakanatik

Gai ugari eta era askotakoak landu ditu **Guaixe** hilabetekariak bere azken zenbakian. Elkarriketaren atalean, adibidez, Ekuadortik Sakanara ailegatu den Juan Francisco Naranjori eman dio hitza aldizkariak: «Ez gara lapurtzera etorri. Lan egiteko aukera ematen badigute izugarritzko laguntza da guretako. Atzerriratuak izateko beldurra dugu Ekuadorren zergak ditugulako. Gu kanporatzea ez da zilegi. Hemen, txakur baten bizitzak atzerritar batek baino gehiago balio du». Iaztik ez ditu emaztea eta seme-alabak ikusi Naranjok.

Bestalde, Uharte-Arakil herriko berrien tartean, Aralar Mendi elkarteko zuzendaritzaren erdia berritu dutela aipatzen du Guaixek: «Juanmi Etxabarri izango da bigarren aldiz lehendakari eta bere ondoan talde gazte eta langilea sartu da. Elkartek itxuraldaketa nabaria izan du: igerilekuen eta egoitzaren zati baten berritzea, taberna soil baten funtzionamendutik elkartu itxura hartzerak...».

Ziordian berri bitxia jaso du Sakanako aldizkariak: «Aerobic kirola emakumezkoekin lotzen dugu normalean. Hala ere,

azken aldian gero eta gehiago dira kirol honetara hurbiltzen diren gizonak. Horrelakoetan talde mistoak sortzen dira, ez baita normala izaten gizonezkoekin bakarrik taldea egitea. Ziordin, berriz, gizonezkoekin bakarrik taldea osatzea lortu zuten duela hiru urte eta harrotasun handiz, Euskal Herriko gizonezkoen areobic talde bakarria direla diote. Beraz, badakizue, gorputz atletikoa edukitzeaz gain erritmoa ongi jarraitzen duen gizonezko aurkituz gero ziordiarra izanen da ziu-rrenik».




ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

### Nicole

Tematia, amets gaizto berak bisita egiten dit gauero. Ni intelektual ospetsua naiz eta Europa guztia- ren begirunea daukat. Hau da ametsaren alde ona. Egutero-egutero nire idazkariak kontu korronteetan argitaletxeetatik bidaltako zenbat milioi euro sartu dituen adierazteko hots egiten dit. Nik ez duela zertan egutero-egutero deitu behar egiten diot errieta eta, berriz, baietz, astea libre hartzeko esaten diot, baldin eta horren garrantzitsua baldin bada berarentzat Ingalaterrako Ascoteko zaldien lasterketara joatea. Eta ondoren sakelako telefonoa modu alai eta axolagabean Estrabusgorko erreka, edo Sena ibaira, edo Tiberera botatzen dut, non nagoen, noski, eta txistuka jarraitzen dut aurrera, hurrengo taberna edo putetxearen bila. «Orain amets gaiztoaz hasiko da», pentsatuko duzue irakurle maiteak; bada, asmatu duzue. Zeren bat-batean nire aurrean poliziako bi motoristak zaindutako Mercedes txuria gelditu da eta, nola ez!, nire gidaria, Bixikulas, autotik jaitsi eta, barkatzeko jauna, baina abisu garrantzitsu bat duela esaten dit. «Ea—esaten diot nik orduan ahotik pipa kenduz-, zer izan daiteke horren garrantzitsua niretzat? Truman Capoteren urrezko esalditxo bat ez bada?, txolarreen saltotoxak ikustea ez bada, neska gazte bati kaletik begiratzea ez bada, zer izan daiteke 'garrantzitsua' niretzat? Zer inporta zait niri munduan 'gauza garrantzitsuak', tump!, zigilua ezarri zaizkien pitokeriak». Eta orduan Bixikulasek esaten dit Nicole Lafontaine sari bat eman didala. Kagoenlatxota. Bakearen eta Demokraziaren ez dakit zer sustatzeagatik. Kaguena lale. Egun guztia eman duela (Bixikulasek, ez Lafontaine) nire bila. Estrasburgo, Paris, Erroma guztia (non nagoen) arakatu duela tabernaz taberna, putetxez putetxe. Dedio. Lafontaine. Berriz! Hirugarren edo laugarren saria jada. Zer ikusi du nigan? Eguna libre hartzeko keinua egiten diot Bixikulasi, eta ziztu bizian motoristekin batera desagertzen da. Nik, berriz, amets gaiztoaren zurrunbilan erabat sarturik, ibaiaren ondokig segitzen dut paseatzen eta, era berean, desagertzen. Nicole, o Nicole. Zer ikusi duzu nigan? Ez al zaizu besterik bururatzen hitzordu bat lortzeko? Bitartean, ibai ondoan, Sena, Tiber, Danubion (non nagoen) telefonoaren txirriak jo eta fuego segitzen du. O Nicole! ●

# San Frantziskoik



**L**IBURUTEGIAREN EGUNGO ERAIKINA LA Agrícola izeneko bankuaren egoitza izan zen XX. mendean lehen zatian. Aurrerago, kontu korronteak betiko itxi eta Grand Hoteleko salak eta logelak zabaldu zituzten bertan. Horren ondoren, 1971 urtean, hotela zena Nafarroako liburutegi nagusi bihurtu zen.

San Frantzisko Plazan paratu aurretik, liburutegiak beste zenbait kokapen izan zituen. Bertako zuzendari Juan Francisco Elizaren esanetan «Nafarroako liburutegi nagusia Gerra Zibila bukatu ondoren sortu zen. Batetik, XIX. mendeko desamortizazioaren ondorioz, elizaren eskuetan zeuden liburu asko jaso ziren. Bestetik, garai hartan San Jose plazan zegoen institutuaren fondoa izan zen beste iturri nagusi bat biblioteka berria hornitzeko».

Hasieran, Nafarroako Ospitaleko pabilioi batean bildu zituzten liburu guztiak. Gerora, Parlamentuaren egungo egoitza zabaldu zituen atak, Karlos III etorbidean. Azkenik, duela 30 urte, San Frantzisko plazara eraman zuten.

Lehenik, irakurketa eta kontsulta aretoa soilik ireki zen. 1980 urtean, berriz, liburuak maileguan uzteko zerbitzua jarri zuten abian.

## Apalategiak mukuritu beteta

Bibliotekari nagusiak dioenez, «hiru hamar-kada geroago, espazio berarekin jarraitzen dugu, baina liburuaren kopurua etengabe ari da handitzen. 300.000 inguru dauzkagu sailkatu-rik. Klase orotarikoak dira: literatura, ikerketa, dibulgazioa... Urte oro, 10.000 argitalpen berri jasotzen ditugu».

Horretaz gain, antzinako makina bat liburu berreskuratzea lortu dute. Nolanahi ere, beren lehentasun nagusia Nafarroan plazaratutako lanak eta herrialde honi buruzko liburuak biltzea da. «Hori dela eta, euskaraz idatziriko

Nafarroako Liburutegi Nagusiko liburuak apalategi berrien bila abiatuko dira aurrerago.

**Nafarroako liburutegi handiena txikiegi gelditu da. San Frantzisko plazan dago, Iruñeko Alde Zahar Azkenaldian, Nafarroako Liburutegi Nagusiaren egoitza tokiz aldatzeko asmoa azaldu dute agintariek. Bertan dauden eskola publikoetan atonduko dute biblioteka berria. Denbora anitz pasatuko da liburutegi berria ikusi arte, baina hasiak dira urratsak egiten. Dagoeneko ideien lehiaketa egin du Gobernua**

liburuak tarte eta garrantzi berezia dute gurean. Inoiz baino obra gehiago argitaratzen dira orain, nahiz eta duela urte gutxi arte ez den horrelakorik gertatu. Dena den, liburu gehiago dago euskarari eta euskal kulturari buruz gaztelania hutsean».

Gauzak horrela, tokirik gabe gelditu dira. Apalategi guztiak mukuritu beteta daude. Lan baldintzak ez dira behar bezalakoak.

Bestetik, San Frantziskoko egoitza 200 eserleku besterik ez dago. Ikasleek eta oposizioak prestatzen ari diren lagunek jotzen dute bertara bereziki. Baita jubilatutako zenbaitek ere. Goizeko 08:30etik iluntzeko 20:30era dago zabalik. Mailegu Zerbitzuak ere ordutegi bera dauka. Bertan, hamabostaldi baterako hiru liburu hartzeko parada dago. Urtean 100.000 eskaera inguru jasotzen dituzte. Orotara, 35.000 bazkide ditu liburutegiak.

## Kulturgune dinamikoaren bila

Juan Francisco Elizaren ustez, «Iruñeak ez du behar bezalako liburutegia. Egun, biblioteka berrietan irakurleari apalategien artean ibiltzeko eta liburuak ukitzeko eta gainetik irakurtzeko aukera ematen zaio. Zuzen-zuzeneko harreman hori ezin da gauzatu gurean. Bestetik, liburutegiak orain kulturgune dinamiko-

ak dira. Bertan, erakusketak, lehiaketak, ekitaldiak, jardunaldiak eta bestelako kultur ekintzak antolatzen dira». Bere aburuz, etengabeko aldaketa garai hauetan, ikus-entzuzko materialak eta informatikaren aplikazio eta bide berriak jendearen esku jartzeko erronkari etsi behar diete. Liburuaren gordeleku ez ezik, bestelako zerbitzu zabalagoak eskaini behar ditu honelako erakunde batek.

## Proiektu berriaren zain

Tamalez, liburuzainaren nahi guztiak ezin dira bete orain baldintzekin. 35 lagunek bakarrik osatzen dute lan taldea, eta 2.000 metro koadro besterik ez dituzte. Aurrekontuaren 35 milioiak liburuak erosten agortzen dira. Horrenbestez, egoitza berri bat behar dutela azpimarratzen du hango arduradunak. «Hiriburu osoari behar bezalako zerbitzu eskaintzeko kokapen egokia bilatu behar da. Agintariek San Frantziskoko eskolatan paratzea erabaki dute, Alde Zaharra suspertzeko xedearrekin. Hala ere, nire ustez, bertatik kanpo egon beharko luke, sarbide hobeaz izateko». Proiektu berriaren arabera, egoitza berriak 14.000 metro koadro izanen ditu.

→ Pello Argiñarena eta Asier Azpilikueta

# San Frantziskora



Liburutegiko mailegu zerbitzuan urtean 100.000 liburu eskaera inguru jasotzen dira. Orotara, 35.000 bazkide ditu liburutegiak. San Frantzisko liburutegian 200 eserleku besterik ez dago. Ikasleek eta oposizioak prestatzen ari direnek jotzen dute bertara bereziki. Baita erretiratu zenbaitek ere. ● MIKEL SAIZ

## Eperik gabeko liburutegi berria



**NAFARROAKO LIBURUTEGI NAGUSI BERRIRAKO IDEIA** lehiaketan lanak aurkezteko epea iragan otsailaren 26an bukatu zen. Ordu arte 150 bat lan aurkeztu ziren, lehiaketak sortu duen interesaren erakusgarri. Kultura Departamentuko liburutegi ataleko zuzendari Jose Ortegak adierazi duenez, «ideien lehiaketako epea bukatzen denetik hilabete dago epaimahaia osatzeko. Epaimahaia eztabaidatu eta lehiaketako sariak banatzeko proposamen bat helaraziko dio Nafarroako Gobernuari. Eta irabazten duen ideia oinarri hartuta, proiektua erredaktatzeko enkargatuko da».

Denbora dezente pasatuko da San Frantzisko plazako eskolen tokian liburutegi berria ikusiko dugunerako. Ortegak dioenez, «ez dago eperik liburutegia egiteko». Eta, halaber, ez dago zehazturik eraikin berria egingen ote den edo eskolena zaharberrituko ote den. «Ideia lehiaketan ez zen zehazten», erran du Ortegak. «Lehiaketan irabazten duen ideia arabera egingen da modu batean edo bestean».

Erran bezala, liburutegi berria San Frantzisko eskolatan egingen dute, eta bertako haurrak teresaren kolegioko eraikinerara pasatuko dira. Azken eraikin horren atontzea heldu den urtean ere ez da hasiko. Beraz, 01-02 ikasturtea oraindik San Frantzisko eskolan egingen dute haurrak.

Liburutegi nagusi berriaren inguruan gauza anitz dago zehazteko. Baina gauza jakina da liburutegiko eraikinean filmategia integratuko dutela, Iruñeko Udalaren eta Nafarroako Gobernuaren arteko hitzarmen bati esker. Filmategiaren xede nagusia izanen da egun Nafarroako Museoa gordetzen diren fondoak eta eskura daitezkeen guztiak behar bezala gordetzea eta erakustea.

Liburutegi Nagusiaz landara, Nafarroan bada herri liburutegien sarea, 1950ean sortu eta 1982tik Vianako Printzea erakundeak zuzendua. Egun sareak 84 liburutegi ditu. Horieta 66 Nafarroako Gobernuaren menekoak dira, zuzen-zuzenean, Gobernuaren eta udal edo kontzejtu interesatuen artean sinatutako hitzarmen baten bidez arautuak.

Hitzarmen hori betetzeko, udalak liburutegia paratzeko tokia uzten du, doan, baita hura zaindu eta kontserbatzeko ardura hartu ere. Horretaz gain, urtero, diru zenbateko bat jartzen du bibliografia fondoak handitzeko. Nafarroako Gobernuaren, berriz, altzariez, hasierako bibliografia fondoaz eta urtero hura handitzeaz arduratzen da. Zer lanorduta dute, horren arabera sailkatzen dira liburutegiak: 31 liburutegitan, astelehenetik ostiralera lanaldi osoko langileak daude; eta 35etan, astean 25 orduko lanaldia dute langileak daude.

Juan Francisco Elizari

SAN FRANTZISKO LIBURUTEGIKO  
ZUZENDARIA



*«Iruñeak ez du behar bezalako liburutegia. Egun, biblioteka berrietan irakurleari apalategien artean ibiltzeko eta liburuak ukitzeko eta gainetik irakurtzeko aukera ematen zaio. Zuzen-zuzeneko harreman hori ezin da gauzatu gurean»*



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Beste euskal idazle nafar batez

Arakatzuz arakatu Nafarroako euskal idazleen zerrenda emendatuz doa; gaurkoan Fermin Goikoetxea Jaunsarats apaiz larraundarraren berri ekarriko dugu; *Batek* goitizena erabiltzen zuen idazle ezezagun hau tradizionalista sutsua zen, karlista amorratua eta katoliko suharra, ezagutzen dugunaren arabera, ekoizpen laburrekoa oraino, interes bizikoa baina.



**H**ogeita zortzi urtetan Orreagako priorea izan zena Larraun aldeko Lekunberrin sortu zen, 1873an. Iruñeko apaizgaitegian ikasi ondoan apezteari 1897an heldu zion, eta segituan Azkaraten eta Iraitzen ekonomo, Alkozko babesetxe kaperau eta Lesakako apaiz-laguntzaile jardun zuen. Orreagara 1909an iritsi zen kalonje, eta priore 1915ean aukeratu zuten, hil artean mantendu zuen kargua. Bere horretan zegoeno 1919ko urtarrilaren 2ko sute famatua egokitu zitzaion, infanteen etxea, ospitalea eta lau etxebizitza erre zituenekoa. Ordu samin hartan Aurizko auzolagunak izan ziren funtsean sua amatatu zutenak. Goikoetxearen lehenbiziko lanetako bat infanteen etxea berregitea izan zen, beraz. Denbora laburrera bere pozkida handirako zatekeen gertaera jazo zen, hau da, San Frantzisko Xabierkoaren besoaren erlikia Orreagara 1922ko maiatzaren 8an iristea.

Gerra aurretiko une nahasiak zein gerratearenak berak behin igarota, santutegiko elizari garaieran zuen ber itxura ematea izan zen priorearen helburua. Horretarako Monumentuen Komisioko Onofre Larunbe eztabaidatuaren eta Garraus arkitektoaren laguntza izan zuen. Alabaina gure Lekunberriko apaizak ezin izan zuen ikusi bere asmoen gauzapeña anartean 1943an zendu baitzen, alabaina Larunberen asmoekin bat etorriko zelako segurantzian bagaude, apaiz iruindarrak La Olivan zisteria hartzara sartuz erdietsiriko arrakastak etsirik hein handi batean.

Fermin Goikoetxea euskal idazlea ere bazen izan, argitara zinez gutxi eman bazuen ere. Larraundarra izaki ez da harritzekoa euskaldun fierra agitu

izana, harango hiriburu-koa izanagatik ere. Ideologikoki, berriz, karlista sutsua genuen, eta enbarazu handirik ez zuen izan eduki ere ideologia politikoaren alde propaganda egiteko. Zoritxarrez, bere lan idatzi guztiak sinatu gabe edota ezizenez agertu zituen, eta horri zor zaio, ausaz, oharkabean pasatu izana. Alabaina dagoeneko ezagutzen dugu zein izan zen komunzki zarabilen gaitzizena, *Batek*, eta horri esker euskaraz taxutu testu bat estreinakoz topatu eta errekuperatu dugu orduko kazeta jamistan, *El Pensamiento Navarro*-n, hots. Huraxe behin edo behin historialari ikonoklastaren batek aipatu *Uranga ez da naparrua* dugu, 1913ko martxoaren 6an agertua. Hartan Pedro Uranga Esnaola hautagaiaren desegokitasuna salatzen zen, nafarra ez baitzen, hernaniarra izaki. Egia esan, independente gisara aurkezten zen arren, bere ezpaleko Maurazaleek ez beste gainontzeko alderdiek orok aihor gorria zioten *Diario de Navarra*-ren sortzaileetako honi kanpotar, kazike edota liberala zelako salaketapean.

Gure Goikoetxeak ez zuen gustuko, esan bezala, giputza ez ezik liberala zelako. Horrela agertu zuen elkarrizketa moduan taxutu bere 1913ko



kolaborazioan: «...-Uranga, Uranga,..., izen ori nik ezautzet. Ustet orren negarrak aditu nituala Maura aberatsen partiduan agintaria, mutikoak bezala kuriketant, ibili zanian. - Au arrai mila demonia, ura ez da liberala? - Bai, baita Uranga ere. - Liberala? Eta ez dezu esan orren ate ponyikoak katolikuak dirala? - Bai noski, ala naiko due berak eta guk ezin ukatu, ori baditek, baño Uranga agertzen zagu independientia bezala. - Ez zat batere goguen sartzen izen berri ori. Gaur geldituko gera itz berrikin nunadik joan ez dakigula tabernara, politikuek alde bategatik, katoliku epelak bestetik, eta denen atzengarririk nazionalistek, naspil bazuek besterik ez dire. Baño zer da independientia? - Nagusik ez duna Press-Anton. - Nagusik ez duna? Ez diot sinisten. Neri iduritzen zait ori izaien dela, tximu soñekua bezala, kanpotik seda baño barrundik beti tximun...».



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñean bi mila ijito inguru bizi dira. • JOXE LACALLE

### Calètarak

INDIATIK IRUÑERA. PUNJABEKO eskualdetik Descalzos karrikarra. Betidanik harat-honat ibili behar izan dute. Nafarroako Ijitoen Elkarteko presidente Raimundo Jimenezek dioenez, «1025. urtean Mahmud sultana Punjabeko eskualde indiarra bere mendean hartu zuenean bertako hainbat herritarrek ihesari ekin zioten. Europa osoa zeharkatu ondoren, XV. mendean agertu ziren Iberiako penintsulan».

Ijitoek bide luzea egin dute Nafarroara iritsi arte. Haien ordezkariaren esanetan «gaur egun Iruñearen eta bere inguruan 350 ijito familia bizi gara. Orotara 2.000 lagun gutxi gorabehera, Alde Zaharrean, Txantrean, Arrotxapean, Sanduzelain, Etxabakoizen eta Ermitagañan. Iruñerrian, berriz, Atarrabian, Burlatan, Berriozarren, Orkoienen eta Noainen sakabanaturik gaude».

Hala ere, orain dela gutxi finkatu dira gure artean. Urte luzez herri nomada bat izan da ijitoena. Orain arte nekazaritzan sasoikako lanetan, txatarra biltzen eta saltzaile ibiltari bezala aritu dira beharrean.

Esparru horretan ere nahiko aurreratu da azkenaldian. Maite Abaurrea gizarte laguntzailearen ustez, «gero eta gehiago dira fabriketan edo eraikuntzaren sektorean lan iraunkorra lortu duten Iruñeko ijitoak». Nahiz eta legediak eskubide guztiak aitortzen dizkien, beste hainbat herrialdetan bezala,

Iruñeko gizarteak sarritan bazterrean uzten ditu ijitoak. Harren aburuz, «aurreiritzi asko dago oraindik, beldur diogu gu bezalakoa ez denari; antzeko zerbait gertatzen ari da orain etorkinekin. Nafarroako hedabideek ere ez dute asko laguntzen; hizkera arrazista eta albiste sentsazionalistak nagusi dira ijitoen inguruko berriak azaltzerakoan».

Raimundo Jimenezaren arabera, «ijitoek ez dugu geure burua autodiskriminatzeko joera. Harremanak lotzeko prest gaudu gehienetan. Kanean hazi eta hezitakoak gara. Gizartea da alde batera utzi gaituena. Horrenbestez, balore propioak sortu ditugu ijitoek».

Bestetik, Maite Abaurrearen iritziz, «gero eta antzekotasun gehiago dago batzuen eta beste on artean. Argi dago ijitoak 30 urte atzetik doazela gurekin alderatuz; esate baterako, emakumezkoek birjintasuna gorde behar izaten dute ezkondu arte. Oraindik ere lau seme-alaba inguru dituzte. Erabaki nagusiak edadeko ijitoen esku egoten dira». Bestelakoetan, berriz, nahiko egoera paretsuan bizi garela nabarmen-tzen du berak: «Gizonezkoak gehienetan matxistak dira, etxearen ardura emakumezkoena da; horren ondorioz, zailtasun handiak dituzte lan mundura jauzi egiteko». Azken batean, berdina gara eta ezberdina gara. Gainera, gu bezalaxe, hemengoak dira ijitoak.

### Ziria

• Motxorrosolo •

#### Basque

**I**TXURAKERIAK EZ DU LOKARRIRIK USTEZKO EUSKALGHINTZAN. BARRERAGIAGO utziko gaituztenak sortzeke. Alta, harat-honat dabilenak bilorik ez ahoan. Ez zaio arrazoirik falta Oragarrekoari. Basilikaren garaiko malezia sorta, molde berrian. Ideologiaz blai. Hamazazpi urte ez dira alferrik igaro.


# Tomas Muez eta Angel Lukin

TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENEN KALTE EGINDAKO BIZILAGUNAK



«Eragina jakin arte, antenak ahalik eta urrunen nahi ditugu»

Tomas Muez eta Angel Lukin, Iruñeko Donibane auzoko bizilagunak, aspaldi kezkatuak daude telefonia mugikorreko antenen erradiazioa dela eta. Ez dago frogatuta erradiazio horrek epe luzean zer sortuko duen, baina, badaezpada ere, antena horiek ahalik eta urrunen nahi dituzte.



## Handituz doan sarea

IRUÑEAN TELEFONIA MUGIKORREKO 50 BAT ANTENA OMEN DAUDE. TOMAS MUEZ ETA ANGEL LUKIN ANTENA BATEN AZPIAN BIZI DIRA, "DONIBANEKO FITERO MONASTERIOAREN KALE BUKAERAKO ERAIKIN LUZE, BERDE ETA ITSUSIAN", LUKINEK DIOENEZ. ASPALDITIK DAUDE KEZKATURIK BURU GAINEN ANTENAREN KIN. INFORMAZIOA JASO, AZERTU ETA ONDORIOAK ATERA DITUZTE. ETA BERRIKI ANTENAK ARAUTZEKO ORDENANTZA PROPOSAMENA AURKEZTU DUTE IRUÑEKO UDALAN, BATZARREKO TERE GONZALEZ ZIHEGOTZIAREN BIDEZ. GAINERA, SINADURAK BILTZEARI EKIN DIOTE. IRAGAN ASTELEHENEAN BILERA IREKIA EGIN ZUTEN GAIAZ INFORMATZEKO ETA IRUINDAR UGARI BILDU ZIREN: HOGEI BAT, AUZO ELKARTEETAKO ORDEZKARIAK HORIEN ARTEAN. HORIEKIN, AUZO ELKARTEKOekin, BILERA EGINEN DUTE HELDU DEN ASTELEHENEAN, BIZILAGUN KALTETUEN HASIERAKO SARE TIKI HORI PLATAFORMA BILAKATZEKO.

Eta inork ez dakienez, neurriak har ditzagun, badaezpada ere. Hemen ez dago deus arauturik telefonia mugikorreko antenen inguruan. Eta ez dago arautzeko borondaterik. Jatetxe eta tabernen inguruan ordenantzarik ez balego bezala da, horiek sor dezaketenez zarata eta kea arautuko ez balute bezala.

ANGEL: Horregatik ez dugu ulertzen nola Udalak eraikuntza lizentziak ematen dituen eta gero ez duen hau kontrolatzen. An-

tenena instalazio industrial da. Antenaz aparte txabola eraiki behar da, tramankulu elektronikoz beterik. Estatuak alde teknikoak ezarri ditu, baina ez alde sanitarioak. Eta hor dago kokxa. Zergatik kezkatzen dira ezaugarri teknikoekin eta ez osasun alorrekoekin?

TOMAS: Telekomunikazio enpresek botere handia dute eta, akaso, hor dago gakoa.

→ Asier Azpilikueta

MUEZ ET ALUKINEK, BESTE ZENBAIT BIZILAGUNEKIN BATERA, DUELA GUTI ANTENAK ARAUTZEKO ORDENANTZA PROPOSAMENA AURKEZTU DUTE, BAINA IRUÑEKO UDALAK EZ DIE ORAINO KASU HANDIRIK EGIN.

### ■ Nola ohartu zineten antenen arazoaz?

ANGEL: Gure auzo elkartean badaramatzagu lau bat urte ondoan bi antena estazio ditugula. Estazioa muntatu eta gero, Udalerako jeneralek jakiteko nola kontrolatzen ahal zen estazioen emisioa, indarra eta abar. Orduan konturatu ginen ez zegoela ezer honen inguruan. Udalekoek ematen dituzte baimenak, eta gero ez dute ezer egiten. Egoera hori nahiko larria iruditu zitzaigun.

### ■ Baina, berez, zer problema sortzen dute antenek?

ANGEL: Antenek efektu fisiologikoa dute, erritmoen aldaketa sortzen dute: lo egin ezina, nekea, estresa, deskontzentrazioa...

TOMAS: Baina erreklamaziorik egiten baduzu, beti esaten di-

zute ez dagoela zientifikoki frogaturik osasunaren aldetik arazoak sortzen dituztenik. Egia da, baina frogatuta dago antenen erradiazioak baduela giza gorputzaren fisiologian nolabaiteko eragina. Antenek efektu termikoa dutela onartzen dute, baina oso inguru txikian gertatzen

«Hemen ez dago deus arauturik telefonia mugikorreko antenen inguruan. Eta ez dago arautzeko borondaterik. Jatetxe eta tabernak arautzeko ordenantzarik ez balego bezala da hori»

dela diote. Horren arabera, Europako Batasunak markatzen duen araudiak esaten du metro gutiko distantzia utzi behar dela antenaren ardatzetik. Eta guk diogu epe luzean eragina ote duen frogatuta ez dagoenez, ba-

daezpada biztanleek egon behar dutela antenetatik ahalik eta urrunen. Suitzan eta Italian halaxe egin dute; herri horietan distantzia dezente egon behar du antenetatik biztanleen bizitoki-taraino.

### ■ Pertsona guziek eragin berrajotzen dute?

TOMAS: Ez. Diotenez, eragirik handiena antena aurrean bizi direnek jasotzen dute.

ANGEL: Eta horrek lasaitu gaitu pixka bat, gu antena azpian bizi garela.

TOMAS: Bestetik, antenek giza fisiologian eragina izan dezakete, baina horrek ez du esan nahi gizaki guziengan eragina dutenik. Genetikoki sentikorrago denak eragin handiagoa izanen du.

### ■ Suitzan, Italian eta Frantziatik bezala, hemen ere badaezpada neurriak hartzea nahi duzue?

TOMAS: Bai. Inork ez daki zer gertatuko den epe luzean intentsitate gutiko erradiazioekin. Denek onartu dute ez dakitela.



## Nafar Kronika

Mikel Beramendi

### Iruñea, adibidez

Politikoen sentimenduez mintzatzea zaila bada ere, gaur eta hemengo arazo batzuk behar bezala aztertzeko ezinbestekoa iruditzen zait eremu irristakor horretan ibiltzen saiatzea, politikoei kazetarien aitzinean erraten dituztenak ez ezik, gordetzen dituztenak ere kontuan hartuz. Eta isiltzen dituztenak. Eta gustura erranen lituzketenak. Eta hurbilekoei aitortzen dizkietenak. Horiek albiste ez badira ere, prentsaurrekoetako mezuak bezain garrantzitsuak direlakoan nago.

Adibideak asko izan litezke. Har dezagun Iruñea. Udalak aparkalekua egin nahi du hiriko toki ezagunenean. Talde batzuk mugitzen hasten dira, proiektuari aurre egin nahian. Udalak Eslava kasinoan antolatutako hitzaldiek ongi erakusten dute (tokia, sarreren banaketa, eztabaidaren beraren antolaketa...) zertaz ari diren biztanleriaren parte-hartzeaz hitz egiten dutenean. Hiriaz kezkatzen diren taldeen jarrera ontzat hartu beharrean, susmagarri bihurtuko dituzte ahalguztidunen irizpidearekin bat egiten ez badute. Eta benetako eztabaida sano eta onak bultzatu beharrean, bertze erremedioren ezean, zezena toreatzen saiatuko dira, itxura eginez.

Orain dela hogeita bost urteko zinegotziak jo eta ke aritu ziren lanean (eta deus kobratu gabe) Udala guztiona zela errepikatuz. Horietakoren batek lana ere galdu zuen zinegotzi lanetan harturiko erabakiak lan egiten zuen bankuko bezero boteretsu batzuen interesen kontrakoak zirelako. Garai honetan ez gara horrelako erromantizismo frogaske hasiko, baina oraingoa ere ez dut uste normala denik. Barcinak nahi badu, egin dezala Gaztelu Plazako aparkalekua, horretarako behar hainbat boto izanen du eta. Baina, behintzat, esan dezala argi eta garbi ez duela bertze inoren iritzirik entzun nahi, ez duela biztanleriaren kezka kontuan hartu nahi. Are gehiago: jendearen iritzia entzutea ontzat hartzen duela... udal agintariena denean. Portzierto: udal zergen ordain-agiriak heltsen hasi dira. Elebidun zirenean ere ez dut uste karta jasotzean inor poztuko zenik, ordaintzea (euskaraz edo erdaraz) berdintsua delako. Baina orain nazka ere emanen digu.

## gure aukerak

### MUSIKA

► **Iruztzun:** Haur Kantari Txapelketako bigarren kanporaketa eginen dute bihar, eskolako frontoian, 17:00etatik aurrera. Iruztzungo, Altsasuko, Lakuntzako, Leitzako, Aresoko, Atarrabiako eta Burlatako 140 haurrek parte hartuko dute.

### BERTSOLARIAK

► **Lodosa:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako bigarren kanporaketa kultur etxean eginen dute, bihar, 18:00etan. Parte-hartzaileak: Nerea Bruño, Oskar Estanga, Ekintza Landa, Josema Leitza, Aritz Saragueta eta Joxe Juan Zubieta.

► **Leitza:** Nafarroako Bertsolari Txapelketako lehen finalaurrekoa igandean eginen dute, zinemaren, 17:00etan. Parte-hartzaileak: Manolo Arozena, Xabier Legarreta, Xabier Silveira, Xabier Terreros, Mikel Altzuart eta Julen Zelaieta.

### KORRIKA KULTURALA

► **Allotz:** Euskararen egoerari buruzko hitzaldia eta afaria. Gaur, 20:00etan, elkartean.

► **Zizur Nagusia:** Dantza garaikidea. Gaur, 22:00etan, Kultur Etxean Tempomobile taldeak *Airborn* lana estreinatuko du, eta *Eletiope* taldeak *Zurdas* lana eskainiko du.

► **Iruñea:** Mural margotzea eta txistor jatea. Bihar, 12:00etan, Txantreako Mugazuri zeharkalean.

► **Lizarra:** 20. urte Korrika. Aurreko Korriketako argazki zein bideo erakusketa eta pintxoak. Bihar, 18:00etatik 22:00etara, Gure hizkuntza elkartean.

► **Lizarra:** Eskubaloi partida Itxako eta Akaba taldeen artean. Igandean, 12:00etan, kiroldegian.

► **Iruñea:** *Komeriaka* antzezlanaren, bakarrizketa umoretsuak. Os-

tegunean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.

► **Garralda:** Hitzaldia, Iñaki Caminok emana, *El vasco de Aezkoa: Historia y perspectivas*. Ostegunean, 20:00etan, Etxabarrego elkartean.

### ZINEMA

► **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren baitan, gaur, *Zu zeu (Get real)* filma eta *Usoa* film laburra, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

### HITZALDIAK

► **Iruñea:** Patxi Telletxeak *Mundu-*

*ko hizkuntzak* izanen ditu mintzagai, asteartean, 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

► **Elizondo:** Julen Gabiria idazlea *Connemara gure bihotzetan* bere liburuaren gainean solastatuko da, bihar, 17:00etan, Arizkunean.

### ERAKUSKETAK

► **Iruñea:** Iruña Cormenzana Lopez margolariaren lanak Ormolu galerian daude ikusgai (Paulino Caballero, 42), hilaren bukaera arte, lanegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

### LEHIAKETAK

► **Iruñea:** Alegria de Iruña peñak euskarazko lehen komiki lehiaketa antolatu du. Gaia: sanferminetan gertatua. Lanek bertikalak izan behar dute, eta gehienez Din A3koak. Irabazleak 25.000 pezeta patrikaratuko ditu, eta euskararik jatorrena darabilenak, 15.000. Lanak apirilaren 3a baino lehen entregatu behar dira, peñan bertan (Jarauta, 61-63, 31001), edo korreo elektronikoz bidali (alegriai@euskalerrria.org). Informazio gehiago 948-227115 telefonoan.

• IÑAKI VERGARA



### A ze pare!

Telefonia mugikorrek denda batetik ateratzen harrapatu dugu moja pare (edo, hobeki esanda, harrapatu genuen, dendako Eguberri kartelak salatzen duenez). Tres Reyes hoteleko denda dugu irudikoa. Hiru errege eta bi moja. Mojak, txapelokarren gisara, binaka agertzen zaizkigu anitzetan. Mojak denda «moderno» batetik ateratzen «harrapatu» ditugula diogu. Izan ere, mojak antzinako bizimodu baten erakusgarritzat hartzen dira oraindik ere. Euren itxurak garamatza hori pentsatzen. Eta arraro samar egiten zaigu mojak modernitatearen kontuekin lotzea. Bada, mojak ere sakelako telefonoa erabiltzeko prest dira, eta eskaintzarik onenen bila dabilta, dei kostua ahalik eta txikiena izan dadin. (Tira, akaso, mojak dendan sartu ziren karrikaren bat no dagoen galdetzeko, baina horrek gure iruzkina izorratuko luke).